



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 12a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehirri bat ematen baita Cener-Ciemat Fundazioa finantzatzeko (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publiko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (4. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Cener-Ciemat Fundazioa finantzatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko azaroaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, Cener-Ciemat Fundazioa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Cener-Ciemat Fundazioa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea (10-19/LEY-00011).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Cener-Ciemat Funda- zioa finantzatzeko

ATARIKOA

CENER-CIEMAT Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da. Haren helburu soziala da ikerketa zientifikoko jarduerak egitea, teknologia

garatzea eta intereseko berrikuntzak sustatzea energia berriztagarrien sektorean. Fundazioaren patronatu-kideak honako hauek dira: Nafarroako Gobernua (%49), Estatuko Administrazio Orokorra (%49) eta Automozioa eta Mekatronika I+G Fundazioa (%2).

Bi administrazioen konpromisoa da ekarpen berdinak egitea CENER Fundazioaren funtzionamendu-beharrei kasu egiteko. Beharrak ikusita, erabaki zen Estatuak gastu arruntetarako eta langile gastuetarako ekarpenak egiten zituela, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, maileguak amortizatzeakoak.

2018ko abenduaren 11n, Patronatuak entitatearen 2019ko aurrekontuak onetsi zituen, non aurreikusita baitago ekitaldi horretan 6.324.884 euro egiten dituzten maileguak itzultzea.

Fundazioaren Patronatuak, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran, onetsi zuen 2018-2021 Bideragarritasun Plana berrikustea. Plan horretan aurreikusita zegoen Nafarroako Gobernuak 4 milioiko ekarpena egitea urtero, maileguak amortizatzeako.

2019ko ekitaldiko gastu-aurrekontuan, "I+G+b Energia. CENER-CIEMAT Fundazioari funtsak ematea maileguen amortizaziorako" izeneko 820005-82100-7309-467300 partidan, horretarako aurrekontu-kontsignazioa aurreikusi da, hasiera batean 900.000 euroko kreditua duena.

Dena dela, Fundazio horrek helburu horretarako dituen beharrak 4.000.000 eurokoak dira. Hori dela eta, beharrezkoa da 3.100.000 euroko kreditu-gehigarri bat ematea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabe-

ra, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasu-
neko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu
bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kredi-
tu-gehigarri bat ematekoa. Artikulu horren 2. apar-
tatuak ezartzen du foru lege proiektu horretan
zehaztu behar dela zein baliabide diren egin nahi
den gastu handiago hori finantzatu dutenak, eta
baliabide horiek edozein gastu programatako
beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezkeela,

are Parlamentuak zuzenketen ondorioz berariaz
onetsitako kredituetatik sortzen direnak.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

3.100.000 euroko kreditu-gehigarria ematen da
CENER-CIEMAT Fundazioaren finantzaketa-
beharrei erantzuteko.

Gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan
aplikatuko da:

Partida	Zenbatekoa
820005 82100 7309 467300, "I+G+b Energia. Funtsak ematea CENER-CIEMAT Fundazioari maileguen amortizaziorako" izena duena.	3.100.000

2. artikulua. Kreditu-gehigarriaren finantzake-
ta.

Kreditu-gehigarri hau finantzatu da beheko
taulan agertzen diren aurrekontu-partidetako kre-
dituaren kargura; partida bakoitzetik honenbeste:

Partidaren izena	Zenbatekoa
820000 82000 2276 467300, Mandatua CEIN erakundeari . Laguntzen kudeaketa	153.770,52
820000 82300 2273 421100, Informatika zerbitzuak	23.059,73
820000 82300 6050 421100, Bulegoko altzariak eta ekipamenduak	24.729,98
820000 82300 6094 421100, Modernizazi o proiektuak	90.760,63
820001 82200 7455 425200, NUP. L9 Biltegitratze eta elikatze sistema	197.500,00
820001 82200 7609 425204 Iruñeko Udala . Stardust proiektua	96.400,00
820002 82200 6019 456200, Meatze -lanek ukitutako eremua lehengoratzea	87.183,73
820004 82200 2276 421300, Laguntza teknikoak , kontrola eta ikuskapena	16.177,38
820004 82200 4809 421300, Langile taldearen prestakuntza eta teknikarien birziklatzea	24.910,00
820005 82100 4400 467300, Transferentziak CEIN erakundeari . Spinoff enpresa-berrikuntzaren dinamizazioa , unibertsitateak eta LHko ikastetxeak	27.667,00
820005 82100 4701 467302, Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatze laguntzak ; industriako doktoregoak; ikertzaileen mugigarritasuna	50.005,67
820005 82100 4809 467300, Langile taldea prestatzea eta teknikariak birziklatzea	12.000,00
820005 82100 4819 467305, Zentro teknologikoen eta ikerketa erakundeen jardura ez-ekonomikoetarako laguntzak	250.000,00
820005 82100 7701 467303, I+G proiektuetarako diru laguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	1.109.866,22
820005 82100 7701 467305, I+G proiektu estrategikoetarako dirulaguntzak . Nafarroako RIS 3	935.969,14
GUZTIRA	3.100.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitaratu eta biharamunean hartuko du inda-
rra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat taxutu dezan Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek izan dezaten estalgune bat beren patioetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ikastetxeetako patioak ezinbesteko espazioak dira hezkuntza-erkidegoentzat. Espazio horiek, jolas-orduetan ikasleek aisia-leku gisa erabiltzeko, jolasteko eta atsedean hartzeko leku gisa duten eginkizuna betetzeaz gain –ulertutzat ematen da hori–, sarritan hartzen dituzte gorputz hezkuntzako klaseak eta bestelako eskola-jarduerak

nahiz eskolaz kanpokoak, leku-arazoengatik ikastetxeen eraikinetako ikasgeletan eta aretoetan egin ezin direnak.

Gure erkidegoko klimatologia dela-eta, urtean zehar sarritan gertatzen da ezin izatea patioa erabili, euriagatik nahiz bestelako eguraldi txarrarengatik. Hori dela-eta, azken urteotan estalpeak jartzen hasi dira eskoletako patioetan, halatan bermatzearen ikasleek urteko egun guztietan erabili ahal izatea patioak.

Une honetan, gure erkidegoan oraindik ere badaude titulartasun publikoko zenbait ikastetxe (lehen nahiz bigarren hezkuntzakoak), beren patioetan aipatu estalperik ez daukatenak, eta horrek eragotzi egiten du ikastetxe horietako hezkuntza-erkidegoek eskola-jarduerak nahiz eskolaz kanpokoak egin ahal izatea urte osoan zehar.

Gure ustez, hezkuntza-erkidegoen erreklamazio horri lehenbailehen erantzun behar zaio, gure erkidegoko sare publikoko ikastetxeen artean ez dadin desberdintasunik egon eta instalazio publiko horiei denik eta probetxurik onena ateratzen zaiela bermatzeko.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat taxutu dezan Hezkuntza Departamentuaren bidez, Nafarroako sare publikoko ikastetxe guztiek bi urteko epean estalgune bat izan dezaten beren patioetan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 5ean

Eleduna: Marisa de Simón Caballero